9/26

irizpena

EAEko Sektore Publikoko Administrazio arintzeko eta sinplifikatzeko

Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbo, 2026ko urriaren 7a

CES EGAB
Consejo Económico y Social Vasco
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Irizpena 9/26

Argitalpenak / Maketazioa: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7 - 48011 Bilbao Tlfnoa: 944792150
cesegab@cesegab.com - www.cesegab.com

Lizentzia horri esker, berrerabiltzaileek materiala banatu, nahastu, egokitu eta sortu egin dezakete, edozein bitarteko edo formatutan, merkataritzakoak ez diren xedeetarako soilik eta sortzaileari kreditua ematen bazaio. Materiala nahasten, egokitzen edo sortzen baduzu, aldatutako materiala baldintza berdinetan lizentziatu behar duzu..

I.- AURREKARIAK

2026ko uztailaren 1ean, Gobernantza, Administrazio digital eta Autogobernu Sailaren idazki bat jaso genuen. Horren bitartez, "EAEko Sektore Publikoko Administrazio arintzeko eta sinplifikatzeko *Lege-Aurreproiektua"* testuari buruzko txostena eskatu zuen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, 1 artikuluan azaltzen duenez, zerbitzu publiko digitalak eta herritarrentzako arreta bideratzea, herritarrak ardatz hartuta eta zeharkako ikuspegi integrala, irisgarria eta omnikanala baliatuta; orobat, legearen xedea da Administrazioa sinplifikatzeko eta prozedurak arintzeko arauak ezartzea.

Berehala bidali zitzaien dokumentuaren kopia Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritziak bidal zitzaten eta horien berri eman ziezaioten Lan Batzordeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoarekin bat etorriz.

2026ko irailaren 25ean, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietatik abiatuta, Irizpen-Proiektua formulatu zen, Batzordearen osoko bilkurari helarazteko, eta han gehiengoz onartu zen Finantza-erakundeen ordezkari den kontseilukidearen boto partikularrarekin (hirugarren taldea).

II.- EDUKIA

EAEko Sektore Publikoko Administrazio arintzeko eta sinplifikatzeko Lege-Aurreproiektuak zioen azalpen bat, 3 titulutan banatutako 80 artikulu, 8 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor eta 14 azken xedapen ditu.

Azalpen-zatia

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak administrazio publikoen funtzionamendurako esparru juridikoa osatzen dute, eta, zehazki, bitarteko elektronikoen bidezko funtzionamendurako.

Euskal Sektore Publikoa aspalditik ari da hainbat jarduera-ildo lantzen, prest egon dadin gizartearen aldaketa teknologiko gero eta handiagoei aurre egiteko, kontuak emateko eta herritarrak botere publikoekin pozik egotea lortzeko.

Administrazio hurbilagoa eta sinpleagoa lortzeko konpromisoa Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen xedeetako bat da.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko 91/2023 Dekretuak Administrazioa sinplifikatzeari eta arintzeari buruzko zenbait alderdi arautzen ditu; hain justu, zerbitzu eta prozeduren digitalizazioarekin eta administrazio elektronikoaren garapenarekin zerikusia dutenak.

Edonola ere, nahitaezkoa da lanean jarraitzea, herritarrak erdigunean jarrita, Administrazio hurbilago, sinpleago, efikazago eta efizienteagoaren aldeko konpromisoan sakontzeko jarduera-ildoei heltzeko.

Horiek horrela, lege honek Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legea osatzen du. prozesuekin, prozedurekin eta tresnekin lotutako alderdiak bideratuko baititu, arrazionalagoak, arinagoak eta administrazioaren aldetik sinpleagoak izan daitezen eta karga, ahalegin eta kostu gutxiago eragin ditzaten.

Funtsean, Administrazio publikoaren desburokratizazioa lantzeko beste ekimen bat da lege hau, eta pertsona orori egokiturik, efizientziaz eta arintasunez jarduteko mekanismo berriak aztertzen ditu. Izan ere, funtsezko urratsa da hori, eskura dauden kanalen bidez herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko eta Euskadin bizi diren pertsonen eguneroko bizitza errazteko.

Lege honen asmoa da herritarrak erdigunean jarrita kudeatzea zerbitzu publikoak, bi begirada uztartuta.

Batetik, kanporako begirada, hau da, herritar guztiei begira jardutea (pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta enpresak); horrek esan nahi du administrazio publikoekin izango dituzten harremanak errazagoak izango direla eta, beraz, ahalegin txikiagoa egin beharko dutela Administrazioarekin erlazionatzeko.

Bestetik, barrurako begirada ere lantzen du lege honek; alegia, enplegatu publikoak eta barne-prozesuak kontuan hartzen ditu, zerbitzu publikoa denbora eta ahalegin gutxiago erabiliz eman ahal izateko.

Xedapen-zatia

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

I. Kapitulua. Xedea, helburua eta aplikazio-eremua.

II. Kapitulua. Herritarrentzako arretaren eta Administrazio Publiko digitalaren printzipioak.

III. Kapitulua. Herritarren eskubideak eta eginbeharrak.

IV. Kapitulua. Administrazio Publikoen eginbeharrak.

V. Kapitulua. EAEko sektore publikoarekiko harremana.

I TITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEKO SEKTORE PUBLIKOA, HERRITARRAK ERDIGUNEAN JARRITA JARDUNGO DUENA.

II TITULUA. ADMINISTRAZIOA SINPLIFIKATZEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEKO SEKTORE PUBLIKOAN.

I. Kapitulua. Xedapen orokorrak.

II. Kapitulua. Administrazio-kargak murrizteko neurriak.

1. atala. Betekizunak egiaztatzeko jarduketak.

2. atala. Informatzeko betekizunak eta betebeharrak sinplifikatzea.

3. atala. Erantzukizunpeko adierazpenak eta aurretiazko komunikazioak.

4. atala. Aurretiazko baimenak, lizentziak eta erregistroak.

5. atala. Dokumento-akreditazioaren ziurtapena eta ziurtapen-entitate laguntzaileak.

III. Kapitulua. Administrazioa sinplifikatzeko barne-neurriak Euskal Autonomia Erkideko (EAEko) Sektore Publikoan.

IV. Kapitulua. Administrazio-prozedura arintzeko eta arrazionalizatzeko neurriak.

V. Kapitulua. Administrazioa sinplifikatzeko lanaren gobernantza EAEko Administrazio Publikoan.

III TITULUA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA.

I. Kapitulua. Erantzukizunpeko adierazpenen eta komunikazioen araubidea.

II. Kapitulua. Ziurtapen-entitate laguntzaileak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

XEDAPEN IRAGANKORRAK.

AZKEN XEDAPENAK.

Horietan, besteak beste, honako hauek aldatzen dira: 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena; 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena; 7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa, Jaurlaritzari buruzkoa; Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legea; Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legea; Lan Harremanen Kontseiluari buruzko urriaren 29ko 434/2013 Dekretua; 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa; eta beste xedapen orokor batzuk, hala nola, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzkoa eta EAEko Administrazio Orokorreko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari buruzkoa.

III.- GOGOETA OROKORRAK

“Euskal Sektore Publikoa arintzeko eta sinplifikatzeko Lege Aurreproiektua” aurkeztu zaigu azter dezagun. Haren helburua da administrazio-sinplifikazioa eta prozeduren arintzea arautzea, bai eta zerbitzu digitalak eta herritarrentzako arreta herritarrengan ardaztutako ikuspegi batekin bideratzea ere, zeharka, modu integralean eta kanal anitzen bidez.

Kontseilu honek aldeko iritzia ematen dio ekimenari, gizartean eta ekonomian eskari handia duen premia bati erantzuten baitio, zeina zuzenean lotuta baitago zerbitzu publikoen kalitatearekin, herritarren eskubideak benetan baliatzearekin eta lehiakortasunarekin eta jarduera sozioekonomikoaren garapenarekin.

Administrazio-karga ez da eskatutako izapide edo dokumentuen kopurura mugatzen; itxaronaldia, ziurgabetasuna eta administrazio-jardunari lotutako zailtasunak ere hartzen ditu barne. Horrek guztiak kostuak eragiten dizkie herritarrei botere publikoekiko harremanetan, bai eta enpresei ere beren jarduera garatzean. Ildo horretan, administrazio-denbora ere kostua da herritarrentzat eta enpresentzat.

Horrenbestez, positiboki baloratzen dugu legegintza-ekimen hau honako gai hauen inguruan

egituratzea:

- erantzukizunpeko adierazpenak eta komunikazioak lehentasunez erabiltzea aurretiazko baimenen ordez, eta azken horiek salbuespenezkoak izatea;
- balio erantsirik gabeko izapideak, dokumentuak eta kontrolak ezabatzea;
- datuak behin bakarrik emateko printzipioa eta elkarreragingarritasuna;
- izapideak bateratzea eta txostenak aldi berean eskatzea;
- epeak murriztea eta ebazteko benetako denborak neurtzea; bai eta administrazioaren gutxieneko esku-hartzea ere.

Hala ere, **Lege Aurreproiektuaren orientazio orokorrarekin bat gatozen arren, badakigu hura onartze hutsak ez duela arrakasta bermatzen, benetan aplikatzea lortzen ez bada**. Ildo bereko legegintza-saiakera ugari egin dira, baina, zoritxarrez, ez dira praktikara eramatea lortu.

Ondorio horietarako, garrantzitsua da digitalizazioa, arintzea eta sinplifikazioa bereiztea. Prozedura konplexu bat digitalizatzeak ez du haren konplexutasuna ezabatzen; arintzeak haren iraupena murrizten du; sinplifikatzeak, berriz, aldez aurretik galdetzea eskatzen du ea baimenek, txostenek, dokumentuek eta izapideek beharrezkoak izaten jarraitzen duten.

Lege berriak bere egiten ditu kontzeptu horiek, eta, ikuspegi holistiko batetik abiatuta, prozeduren etorkizuneko diseinua bideratzeko beharrezkoak diren tresnak ezartzen ditu; baina, aldi berean, lehendik dagoen burokrazia multzoaren gainean ere jarduten du, egungo prozeduren berrikuspen orokorra egiteko aginduz. Izan ere, **partekatzen dugun helburua da arrazoizko epe batean egiaztatu ahal izatea benetan murriztu direla baimenak, izapideak, dokumentazioa, denborak eta administrazio-kostuak**.

Hala ere, jakitun gara **helburua desiragarria bada ere, erabateko zuhurtziaz heldu behar zaiola, dakartzan ondorioengatik, are gehiago Administrazio Publikoa bezalako ingurune batean**.

Arauaren edukian sartuta, jarraian, gure ustez hausnartu, zehaztu, hobetu eta/edo aldatu litezkeen alderdiak aurkeztuko ditugu.

- ***Epeen murrizte hutsa baliteke berez neurri positiboa ez izatea.***

  ✓ *Xedapen orokorrak egiteko prozeduretan epeak murriztea*

  Lege Aurreproiektuak arauen kalitatea, herritarren parte-hartzea eta xedapen orokorrak egiteko prozesuen irekiera indartzera bideratutako hainbat aurreikuspen jasotzen ditu. Zehazki, parte-hartzea arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioetako bat dela ezartzen du, eta entzute aktiboko eta herritarren lankidetzako neurriak hartzea aurreikusten du, arauak egiteko prozeduran parte-hartzea bermatzeko, entzunaldiak, jendaurreko informazioa, kontsultak eta parte hartzeko eta deliberatzeko beste mekanismo batzuk bezalako tresnen bidez. Era berean, Lege Aurreproiektuak administrazio-sinplifikazioa gardentasunarekin eta herritarren parte-hartzearekin lotzen du.

  Parte-hartzearen aldeko orientazio hori, hala ere, prozedurak hainbat neurriren bidez arintzea helburu duten neurri batzuekin batera ageri da; horien artean, kontsulta-organoek esku hartzeko

epeak murriztea. Hala, Lege Aurreproiektuak ezartzen du xedapen orokorrak instruitzeko izapideak aldi berean egin behar direla, hamar eguneko epe komun batean; txostenak eta kontsultak bateratzea eta aldi berean egitea sustatzen du; eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak (aurrerantzean, Euskadiko EGAB) eta Lan Harremanen Kontseiluak funtsezko txostenak egiteko epea murrizten du.

Testuinguru horretan, arauen kalitatearen eta erakundeen parte-hartzearen ikuspegitik, kontuan hartu behar da oreka egokia bermatu behar dela prozedurak arintzeko helburuen eta kontsulta-organoen parte-hartze eraginkorra bermatzearen artean. Sinplifikazioa eta epeak murriztea Lege Aurreproiektuak berariaz ezarritako bidezko helburuak badira ere, horiek aplikatzeak ez du murriztu behar interes ekonomiko eta sozialen ordezkari diren kontsulta-organoek ordenamendu juridikoak esleitzen dizkien erakundeen parte-hartzeko eginkizunak behar bezala betetzeko duten benetako gaitasuna.

Horregatik, Euskadiko EGABek egokitzat jotzen du Lege Aurreproiektuan aurreikusitako arintze-neurriak halako moldez antolatzea, non, nolanahi ere, erakundeen parte-hartzea benetan gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak bermatuko diren.

Euskadiko EGABen kasu berezia

Gogoeta hori bereziki garrantzitsua da Euskadiko EGABen kasuan, haren nahitaezko txostenak funtsezkoak baitira.

Lege Aurreproiektuaren laugarren azken xedapenak, ordea, Euskadiko EGABen nahitaezko irizpenak emateko epeak aldatzea proposatzen du, eta gehienez ere hamabost egun balioduneko epe bakarra ezartzen du araugintza-ekimen guztietarako (lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak) eta Jaurlaritzaren planetarako[1]. Era berean, eutsi egiten zaio aurreikuspen honi: epe hori igaro eta irizpenik eman ez bada, Administrazioak prozedura izapidetzen jarraitu ahal izango du, Euskadiko EGABek bere irizpena geroago bidaltzea erabaki dezakeela eragotzi gabe.

Praktikan, aldaketa horrek indarrean dagoen esparrua honela aldatzen du:

- ✓ Lege-aurreproiektuak: Irizpena emateko epea 30 egun baliodunetik 15 egun baliodunera murrizten da.
- ✓ Dekretu-proiektuak: Egungo 15 egun balioduneko epeari eusten zaio.
- ✓ Jaurlaritzaren planak: Epea 30 egun baliodunetik 15 egun baliodunera murrizten da.
- ✓ Epez kanpo izapidetzea: Irizpena epe barruan eman ez bada administrazio-prozedurarekin jarraitzeari buruzko aurreikuspenak bere horretan jarraitzen du, egungo ordenamenduan lehendik dagoen figura baita.

Azken batean, proposamenak erdira murrizten ditu lege-aurreproiektuei eta Jaurlaritzaren plan orokorrei buruzko nahitaezko irizpenak emateko epeak. Gure ustez, horrek arrisku larrian jartzen ditu Euskadiko EGABen eginkizunak eta ohiko funtzionamendua, besteak beste, honako arrazoi hauengatik:

[1] *Jaurlaritzaren planetarako hogeita hamar eguneko epea, Euskadiko EGABen Legearen 3.2 artikuluan ezarrita ez badago ere, berariaz jasota dago Euskadiko EGABi buruzko urriaren 29ko 433/2013 Dekretuaren 2.2 artikuluan.*

1. Irizpenen kalitate teknikoari eta balio erantsiari eragitea. Epea murrizteak, hain zuzen ere, araugintzaren ikuspegitik garrantzi handiena duten eta iraunkorrak izateko bokazioa duten ekimenei eragiten die, hala nola legeei eta plan estrategikoei. Kasu horietan azterketa-denbora murrizteak zorroztasun teknikoa kentzen dio parte-hartze prozesuari, eta Euskadiko EGABek ekonomia- eta gizarte-arloan autonomia-erkidegoko araudi juridikoaren kalitateari egin diezaiokeen ekarpenaren balioa gutxitzen du.

2. Erakunde-berezitasuna eta parte-hartze prozesuaren *eskakizunak*. Euskadiko EGAB ez da Jaurlaritzaren egitura hierarkikoan txertatutako administrazio-unitate edo sail tekniko bat. Gizarte zibilaren parte-hartze instituzionalizatua antolatzen duen erakundea da, interes ekonomiko eta sozial desberdinen ordezkaritza handiena duten erakundeen bidez, politika publikoak egiteko prozesuan, haien kalitatea, legitimitate demokratikoa eta onarpen soziala hobetzen laguntzeko. Organo zabala, kolegiatua eta plurala da, eta EAEko interes ekonomiko eta sozial desberdinak ordezkatzen dituzten 32 kide titularrek eta 24 ordezkok osatzen dute. Kontseiluaren irizpenak eta txostenak azterketa-, eztabaida- eta adostasun-bilaketa prozesu zorrotz baten emaitza dira. Prozedura horrek denbora egokia behar du azterketa teknikoa egiteko, proposamenak formulatzeko, batzordean eztabaidatzeko eta, ondoren, Osoko Bilkuran erabakiak hartzeko; horri guztiari dagozkion deialdien izapidetze formala gehitu behar zaio.

3. Gizarte zibilaren ordezkaritzaren balioa gutxitzea. Euskadiko EGABen funtsezko eginkizuna da gizarte zibilak arlo sozioekonomikoko erabaki politikoak hartzeko prozesuan duen parte-hartzea instituzionalizatzea, legeek eta dekretuek herritarren benetako premiei erantzuten dietela eta inpaktuaren ebaluazio haztatua dutela bermatuz. Txosten tekniko hutsek ez bezala, EGABen irizpenek araugintza-prozedurara ekartzen dituzte esperientzia praktikoa, ekoizpen-sarearen ezagutza eta Euskadiko erakunde sozioekonomiko adierazgarrienen ahotsa. Azterketa-epeak nabarmen laburtzeak presaka jardutera behartzen du, eta horrek erakundeen parte-hartze horren balioa gutxitzen du.

Laburbilduz, lege-aurreproiektuei eta Jaurlaritzaren plan orokorrei buruzko irizpena emateko proposatutako epe-murrizketak kalte larria egin diezaioke politika ekonomiko eta sozial publikoak egiteko prozesuko erakundeen parte-hartzearen kalitateari, eta zaildu egin dezake legeak EGABi bere lege arautzailearen 2. artikuluaren arabera esleitzen dion helburua betetzea: "*Euskadiko politika ekonomiko eta sozialean interes ekonomiko eta sozial desberdinen parte-hartzea eraginkor egitea*".

✓ *Administrazio-prozedura guztietan epeak murriztea*

Izapideetarako epeak murriztean, betiere bermatu behar da interesdunek prozesuetan erreakzionatzeko duten gaitasuna ez dela oztopatzen. Gai hori neurri batean arintzen da interesdunak eskatuta hasitako izapideetan administrazio-isiltasun positiboa hedatzen dela kontuan hartzen badugu; hala ere, horrek ez du ezkutatu behar, arlo publikoaren kudeaketan, Administrazioak ere guztion ongia betetzen dela zaindu behar duela.

Administrazio-isiltasunak ezin du herritarren bermea ahuldu, bi alderditan: Administrazioak ebazpena emateko eskubidea eta ebazpen hori interes publikoarekin bat etortzeko eskubidea.

- ***Aurretiazko baimenen benetako salbuespen-izaera zaintzeko beharra.***

Positiboki baloratzen da 41.etik 46.era bitarteko artikuluetan jasotako arauketa. Administrazioaren gutxieneko esku-hartzearen printzipioak, erantzukizunpeko adierazpenak eta komunikazioak lehentasunez erabiltzeak, horiek aurkezten direnetik ondorioak izateak, ondorengo kontrolak eta

aurretiazko baimenen salbuespen-izaerak eredu egokia osatzen dute herritarrek eta enpresek jasan behar dituzten administrazio-kudeaketaren epeak eta kargak arintzeko.

Era berean, positiboki baloratzen da 46. artikulua, zeinak aukera ematen baitu baldintzapeko baimenak emateko funtsezko alderdiei eragiten ez dieten gaiak ebazteke daudenean, prozedura alferrik ukatzea eta berriro hastea saihestuz.

Hala ere, zuhurtziaz jokatu behar da aurretiazko baimenei salbuespenez eustea ahalbidetuko duten «interes orokorreko premiazko arrazoien» aplikazio praktikoari dagokionez. Interes orokorra modu generikoan aipatze hutsak ez luke aurretiazko kontrol bati eusteko aukerarik eman behar. Administrazioak honako hauek justifikatu beharko lituzke:

- ✓ zer interes babestu nahi duen;
- ✓ zer arrisku zehatz dagoen;
- ✓ zergatik den beharrezkoa eta proportzionatua aurretiazko baimena;
- ✓ eta zergatik diren nahikoak ez diren erantzukizunpeko adierazpena, komunikazioa edo ondorengo kontrola.

Helburua da salbuespenak azkenean gutxieneko esku-hartzearen printzipioa edukirik gabe uzten ez duela bermatzea.

- ***"Behin bakarrik" printzipioaren aplikazio eraginkorra bermatzea.***

Positiboki baloratzen da Lege Aurreproiektuak sakontzea herritarrek eta enpresek administrazio publikoen esku dagoen informazioa edo dokumentazioa berriro ez aurkezteko duten eskubidean, eta informazio edo dokumentazio hori elkarreragingarritasunaren bidez eskuratzeko betebeharra indartzea. Helburua izan behar da informazioa administrazioen artean zirkulatzea, eta ez berriro interesdunaren bidez.

Zuhurtzia nagusia 36.4 artikuluan aurreikusitako aukerari dagokio, hau da, datu edo dokumentu jakin batzuk zein organotan, espedientetan edo datatan aurkeztu ziren adierazteko informazioa eskatzeari.

Aukera hori arrazoizkoa da benetan beharrezkoa denean, baina ez litzateke ohiko jardunbide bihurtu behar, Administrazioak dagoeneko baduen informazioa aurkitzeko zama berriro herritarren edo enpresen gain jarriz.

- ***Administrazio-kargak konpentsatzeko araua eraginkor egitea.***

Positiboki baloratzen da, betiere herritarren eta enpresen eskubideak bermatzen badira, 9.1.b) artikuluan jasotako "bat sartu, bat atera" araua, administrazio-betebehar berriak metatzea saihestera bideratua. Hala ere, konpentsazioak kargen benetako kostua hartu beharko luke kontuan, eta ez ezabatutako izapideen kopuru hutsa. Formalki baliokideak diren bi betebeharrek oso denbora eta kostu desberdinak eragin ditzakete.

Horregatik, karga berria konpentsatzeko, administrazio-kostu baliokidea edo handiagoa duten betebeharrak ezabatu edo murriztu beharko lirateke, gutxienez honako hauek kontuan hartuta: betetzeko behar den denbora, maiztasuna, eraginpeko pertsona edo entitateen kopurua eta zenbatetsitako kostu ekonomikoa.

Horrela, aldarrikatutako printzipioa berme eraginkor bihurtuko litzateke herritarrek eta enpresek jasaten dituzten kargak metatzearen ondoriozko gehikuntzaren aurrean.

- ***Zuzenketa-errekerimenduak bateratzea.***

34. artikuluak prozedura arintzeko eta arrazionalizatzeko neurrien artean jasotzen du izapideak bateratzea, eta printzipio hori positiboki baloratzen da. Hala ere, komenigarritzat jotzen da zuzenketa-errekerimenduei nola aplikatu zehaztea, errekerimendu horiek bata bestearen ondoren egiteak behin eta berriz eten baititzake izapideak eta izapidetzea beharrik gabe luzatu.

Oro har, eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, organo kudeatzaileak errekerimendu bakar batean jaso beharko lituzke une horretan arrazoiz identifika daitezkeen akats, omisio edo argibide-behar guztiak. Ondorengo errekerimenduak dokumentazio berritik, gerora sortutako inguruabarretatik edo hasierako azterketan arrazoiz hauteman ezin izan ziren gaietatik eratorritakoetara mugatu beharko lirateke. Horrela, Lege Aurreproiektuak berak aldarrikatzen duen bateratze-printzipioa zehazki aplikatzen da, zuzenketa-fase bera ondoz ondoko errekerimenduetan zatitzea saihestuz.

Era berean, zuzentzeko arrazoi jakin batzuk behin eta berriz errepikatzea prozeduraren diseinua, formularioak edo emandako informazioa berrikusteko adierazle gisa erabili beharko litzateke.

- ***Ziurtapeneko entitate laguntzaileei (48. art.) eta dokumentu-ziurtapen egiaztatuaren araubideari (47. art.) buruz.***

48.7 artikuluak aurreikusten du zerbitzuak aplikatzekoa den sektoreko araudiaren arabera ordaindu ahal izatea. Gainera, 47.4 artikuluak ezartzen du ziurtagiriarekin batera aurkeztutako dokumentazioa osoa, nahikoa eta egokia dela, eta Administrazioak emandako txosten teknikoen balio bera duela.

Entitate horiek erabiltzea borondatezkoa da; hala ere, uste dugu bi abiadurako administrazioa sortzeko arriskua dagoela, eta ziurtapen pribatuak, praktikan, administrazio-bide arruntak baino izapidetze azkarragoa lortzea ahalbidetu dezakeela. Kasu horretan, kostu hori beren gain har dezaketenak egoera mesedegarriagoan egongo dira.

Gainera, Lege Aurreproiektuak ez du zehazten nork ordaintzen duen zerbitzua, tarifak nola ezartzen diren, argitaratu behar diren, edo mugarik edo hobaririk dagoen. Inpaktuaren memoriak ere ez ditu kuantifikatzen partikularrentzako eta enpresentzako kostu horiek. Gure iritziz, arauketa osatu beharko litzateke aipatutako alderdi horiek jasoz.

Era berean, ikusten dugu 48. artikuluak zehaztasun falta duela funtsezko alderdi batzuetan, hala nola eginkizunak betetzeko gaitutako gutxieneko profesionalei dagokienez (4.e) apartatua) eta entitate laguntzaileak egiaztatzeko gutxieneko betekizunei dagokienez (4.a) apartatua).

Era berean, komenigarria litzateke 48.7 artikuluko “egiaztapen-zerbitzuak” adierazpena berrikustea; izan ere, entitate laguntzaileek ziurtapen-zerbitzuak ematen dituzte, eta entitate horiek dira egiaztatu behar direnak.

- ***Kontsulten trazabilitaterako eskubideari buruz.***

Komenigarria litzateke eskubide horri buruzko aipamena sartzea bai 22. artikuluan, *Euskadiko Herritarren Karpeta* (apartatu berri baten bidez), bai 55. artikuluan, *Datuen eta informazioaren*

erabilera (4. apartatuan aipatzen da), bai zortzigarren xedapen gehigarrian. Euskadiko Sektore Publikoaren Datu Gunea (BasqueData), BasqueDataren sistemek beharrezko erregistroak sortzen eta gordetzen dituztela bermatzeko.

- ***Ebazteko epeei eta epeen etengabeko ebaluazioari dagokienez (59. art.).***

Gure iritziz, administrazioa arintzera berariaz bideratutako lege batek hiru hilabeteko epea ezarri beharko luke benetako gehieneko epe arrunt gisa, eta epe luzeagoak guztiz beharrezkoak direnean baino ez lituzke onartu beharko. Aurreikuspen horri esker, ordenamenduan dagoeneko jasota dauden bizkortasunaren eta erantzuteko denborak murriztearen printzipioak zehaztu eta eraginkor egin ahal izango lirateke. Aurretiazko baimenekin gertatzen den bezala, salbuespenak justifikazio indartua izan beharko luke.

Hiru hilabetetik gorako epea ezartzen duen xedapen orok honako hauek justifikatu beharko lituzke:

- ✓ hiru hilabeteko epean ebaztea eragozten duten inguruabar zehatzak;
- ✓ eraginpeko interes orokorrak;
- ✓ prozeduraren konplexutasun berezia;
- ✓ zergatik ezin den konplexutasun hori konpondu sinplifikazioaren, aldi bereko izapidetzearen, barne-berrantolaketaren edo baliabide teknologikoen erabileraren bidez;
- ✓ eta ezarritako epea ezinbesteko gutxienekoa dela.

Prozeduraren konplexutasuna aipatze hutsa ez litzateke nahikoa izan behar.

- ***Funtsezkoa da barne-txostenek izapideetan atzerapenik ez eragitea.***

Izapideak bateratzea, txostenak aldi berean eskatzea eta txosten horiek emateko hamar eguneko gehieneko epe orokorra ezartzea atzerapenen ohiko arrazoi bati zuzenean heltzen dioten neurriak dira, hau da, Administrazioaren beraren barne-denborei, eta positiboki baloratzen dira.

Administrazioaren barneko atzerapenak ez litzaizkieke automatikoki herritarrei edo enpresei helarazi behar. Horregatik, hamar eguneko epeari benetako epe arrunt gisa eutsi beharko litzaioke, eta edozein salbuespenek justifikazio indartua izan beharko luke. Era berean, saihestu beharko litzateke nahitaezkoa baina loteslea ez den txosten bat ez emateak prozeduraren ebazpena mugarik gabe blokeatu ahal izatea.

Horregatik, 64. artikulua, *Txostenak eta irizpenak emateko epeak*, aldatzea proposatzen da.

- ***Zehapen-araubideari buruz***

Ikusten dugu 70. artikuluak arau-hauste arinak tipifikatzen dituela; hala ere, 73. artikuluak ez du arau-hauste horietarako zehapenik arautzen, eta arau-hauste astun eta oso astunetarako diruzkoak ez diren zehapenak baino ez ditu aurreikusten; beraz, praktikan, 70. artikuluko apartatu hori aplikatu ezinik geratzen da. Horregatik, 73. artikuluan zehapen, ohartarazpen edo antzeko neurriren bat aurreikusten duen apartatu bat sartzea proposatzen dugu.

- ***Emaitzen ebaluazioari dagokionez.***

Lege Aurreproiektuaren hainbat puntutan emaitzak adierazleen bidez ebaluatzea planteatzen da. Ildo horretan, gure ustez funtsezkoak diren bi alderdi nabarmendu nahi ditugu.

a) Lege Aurreproiektuak programazio-, jarraipen- eta ebaluazio-egitura egokia du. Horregatik, ez da beharrezkotzat jotzen tresna berriak sortzea, baizik eta zer neurtu behar den zehaztea, sinplifikazioak benetako emaitzak ematen dituen jakiteko.

   Gure iritziz, emaitzak eta, ondorioz, Legearen arrakasta modu errazean neurtu ahal izan beharko lirateke: beharrezkoak ez diren aurretiazko kontrol gutxiago, dokumentu gutxiago, izapide gutxiago, errekerimendu gutxiago eta, batez ere, herritarrek eta enpresek administrazioarekin izapideak egiten emandako denbora gutxiago.

   Indarrean dagoen araudiak dagoeneko ezartzen ditu ebaluazioaren, neurketaren eta etengabeko hobekuntzaren printzipioak. Beraz, Lege Aurreproiektuaren balio erantsiak printzipio horiek sinplifikazio-neurrien benetako eragina ezagutzeko aukera ematen duten adierazle zehatzetan gauzatzea izan behar du.

   Sinplifikazio Programak abiapuntuko egoera bat hartu beharko luke oinarri, eta, aplikagarriak direnean, honako adierazle hauek jaso:

   - ✓ ebazteko benetako denbora;
   - ✓ epe barruan ebatzitako espedienteen ehunekoa;
   - ✓ ezabatutako izapideak eta dokumentuak;
   - ✓ erantzukizunpeko adierazpenekin edo komunikazioekin ordeztutako baimenak;
   - ✓ elkarreragingarritasunaren bidez lortutako datuen ehunekoa;
   - ✓ zuzenketen tasa eta arrazoiak;
   - ✓ txostenak emateko epeak betetzea;
   - ✓ eta administrazio-kargek denborari eta kostuari dagokienez izandako bilakaera.

   Ezarritako helburuekiko desbideratzeak gertatzen direnean, horien arrazoiak eta aurreikusitako neurri zuzentzaileak identifikatu beharko lirateke.

   Helburua da ebaluazioak ez neurtzea soilik sinplifikatzeko egindako jarduera, baizik eta herritarrentzat eta enpresentzat benetan lortutako sinplifikazioa.

b) Administrazioen jardueraren printzipio gidariak efizientzia eta jasangarritasuna izan behar dutela onartuta ere, emaitza horiek ez lirateke irizpide ekonomizista hutsetan oinarrituta zehaztu behar. Prozedurak arintzeko eta tresna telematikoak sustatzeko prozesuan, kontuan hartu behar dira arrakala digitalak eta klase-arrakalak prozesuetako interesdunen artean sor ditzaketen desberdintasunak. Pertsona guztiek ez dituzte aukera berberak teknologia berriak eskuratzeko, ezta ingurune digitaletan moldatzeko gaitasun bera ere. Administrazioek herritarrei sarbidea errazteko bitartekoak eta baliabideak bermatu behar dizkiete, irizpide ekonomikoak kontuan hartuta, baina horiek erabakigarriak izan gabe.

III.- GOGOETA OROKORRAK

4. artikulua. Definizioak

Letra lodiz adierazitakoa sartzea eta azpimarratutakoa ezabatzea proposatzen da:

- Herritarrentzako arreta: euskal sektore publikoak harreman konstruktiboetarako gune bat sortzeko antolatzen dituen prozesuen eta bitartekoen multzoa, herritarrei beren eskubideak baliatzeko, betebeharrak betetzeko eta zerbitzu publikoak eskuratzeko aukera emateko. Zehazki, herritarrentzako arretak honako hauek hartzen ditu barne: harrera eta orientazioa; administrazio-informazioa, **izapidetzearen trazabilitatea eskuratzeari arreta berezia** eskainita; dokumentuak betetzea, jasotzea eta erregistratzea; **komunikazioaren ardura**; eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko laguntza eta orientazioa; eta kexen eta iradokizunen kudeaketa.

- Prozedura: zerbitzu publikoa edo horren zati bat emateko jarraitu beharreko prozesua, **urratsak, ekintzak edo jarduketak**, administrazio-egintza bat emateko edo Administrazioaren borondatea adierazteko formalki egindako izapide eta jarduketen multzo ordenatu eta **sistematiko** gisa eratzen dena.

- Prozesua: elkarren artean lotutako jardueren, **faseen edo eraldaketen** sekuentzia ordenatua, administrazio-prozeduretako izapideak barne, herritarrei, zerbitzu edo prestazio publikoen bezero, erabiltzaile edo onuradun diren aldetik, erantzuna emateko edo zerbitzu publikoa eskaintzeko beharrezkoak direnak.

- Administrazio-arrazionalizazioa: lana antolatzea, **erabilitako gutxieneko baliabideekin** errendimendua handitzeko edo kostuak murrizteko, ahalegina; administrazio-prozedura denboraren, kostuaren eta arauaren arrazoizko irizpideen arabera antolatzea; hau da, ahalik eta arinena, ekonomikoena eta zuzenbidearekin bat datorrena izatea".

9. artikulua. rauen kalitatearen, erregulazio onaren eta erregulazio ekonomiko efizientearen printzipioak

Gogoeta orokorretan adierazitakoarekin bat etorriz, administrazio-kargak konpentsatzeko araua eraginkorra izan dadin, 1.b) apartaturako idazketa alternatibo hau proposatzen da:

Administrazio-karga berri bakoitzarekin batera, lehendik dauden karga bat edo batzuk ezabatu edo murriztu beharko dira, betiere haien administrazio-kostua karga berriarena bezainbestekoa edo handiagoa bada.

Baliokidetasuna zehazteko, besteak beste, faktore hauek hartuko dira kontuan: karga betetzeko behar den denbora, maiztasuna, eraginpeko pertsona edo entitateen kopurua eta zenbatetsitako kostu ekonomikoa.

Printzipio horren aplikazioaren aldizkako jarraipena egingo da.

16. artikulua. Bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko betebeharra.

Gogoeta orokorretan adierazitakoarekin bat etorriz, komenigarria litzateke artikuluak kontuan hartzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) eskuratzeko eta erabiltzeko dauden desberdintasunak, hau da, arrakala digitala eta klase-arrakala.

21. artikulua. Kudeaketa bateratuko zentroak

2. apartatuak ezartzen duenez, "*era berean, efikazia- eta efizientzia-arrazoiengatik, eta proiektu bateko jarduketak batera izapidetzea eraginkorra izan dadin, behin-behineko administrazio-unitateak eratu ahal izango dira, izapidetzea errazteko eta arintzeko*".

Salbuespenezkoa izateko sortutako figura bat aldi baterako konponbideen bidez egiturazko premiei erantzuteko erabiltzea saihesteko, honako paragrafo hau gehitzea proposatzen da:

Behin-behineko administrazio-unitateen eraketa behar bezala justifikatu beharko da, haien iraupena, eginkizunak, baliabideak eta langile-zuzkidura zehaztuta. Era berean, langileen eginkizunei, mugikortasunari, lanaldiari, lan-kargei edo lan-baldintzei eragiten bazaie, langileen ordezkariei informazioa emango zaiela, haiekin kontsultak egingo direla eta, hala dagokionean, negoziatuko dela bermatu beharko da. Era berean, unitate horiek ezin izango dira erabili egiturazko premiei edo premia iraunkorrei erantzuteko.

22. artikulua. Nire karpeta herritarren karpeta

Gogoeta orokorretan adierazitakoarekin bat etorriz, honako eduki hau izango duen apartatu berri bat sartzea proposatzen da:

Nire karpeta – Herritarren karpetak aukera emango die interesdunei euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek beren datu pertsonaletara egindako sarbideen, kontsulten eta datu-transmisioen trazabilitatea kontsultatzeko. Informazio horretan, honako hauek identifikatuko dira: esku hartu duen organoa edo entitatea, data, datuak, helburua, prozedura eta tratamenduaren oinarri juridikoa, legez ezarritako salbuespenak eragotzi gabe.

29. artikulua. Administrazio-sinplifikaziorako betebehar orokorra.

Gure ustez, 5. apartatuan eraginpeko kolektiboa aipatzen denean, langileen legezko ordezkaritzari parte hartzeko aukera emango zaio.

31. artikulua. Administrazio-sinplifikazioaren programazioa.

3. apartatuan, gogoeta orokorretan adierazitakoa berretsiz, sinplifikazioak funtzionatzen duen neurtzeko aukera emango duten adierazleak zehazte aldera, honako hau proposatzen da:

a) letran, honako hau gehitzea:

Helburuak neurtzeko moduan formulatu beharko dira, eta, jarduketaren izaerak ahalbidetzen duenean, kuantifikatu egin beharko dira. Halaber, helburuen betetze-maila ebaluatzeko erreferentzia izango den abiapuntuko egoera identifikatu beharko da.

c) letran, adierazleen artean, honako hau gehitzea:

Ebazteko benetako denboren bilakaera, legezko epeak betetzea, izapideak eta dokumentazioa murriztea, elkarreragingarritasun-mekanismoak erabiltzea, aurretiazko kontrolak ordeztea, zuzenketa-errekerimenduak eta administrazio-kargen bilakaera.

e) letra berri bat, honako testu honekin:

e) Aurreikusitako neurriek enplegu publikoan, lanaren antolaketan, lan-kargetan, langile-beharretan eta zerbitzua emateko baldintzetan duten eraginaren ebaluazioa.

33. artikulua. Herritarren parte-hartzea administrazio-sinplifikazioan

Gogoeta orokorretan adierazitakoa berretsiz, 7. apartatuan letra lodiz adierazitako testua sartzea proposatzen da:

Administrazio Elektronikoaren Aholku Batzordearen barruan, Administrazioa Behatzeko, Elkarrizketarako eta Hobetzeko Mahai Iraunkorra eratuko da. Mahai horretan, jendearentzat irekita dauden bulegoetan lan egiten duten profesionalen ordezkariak egongo dira, hala nola administrazio-kudeatzaileak, zerga- eta lan-aholkulariak, lan-harremanetako graduatuak eta abokatuak, dagozkien elkargo profesionalek hautatuak. Horiekin batera, Administrazio Publikoaren ordezkariak, **bertako langileen legezko ordezkariak** eta sektore arteko langile autonomoen erakunde profesionalen ordezkariak egongo dira.

34. artikulua. Administrazioa sinplifikatzeko neurriak

Gogoeta orokorretan adierazitakoarekin bat etorriz, zuzenketa-errekerimenduak zehazteko, 3.h) puntua aldatzea proposatzen da, honela idatzita:

Izapideak eta, bereziki, zuzenketa-errekerimenduak bateratzea. Oro har, errekerimendu bakar batean jasoko dira eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren arrazoiz identifika daitezkeen akats, omisio edo argibide-behar guztiak.

Ondorengo errekerimenduak egin ahal izango dira soilik geroago aurkeztutako dokumentazioaren, gerora sortutako inguruabarren edo hasierako azterketan arrazoiz hauteman ezin izan ziren gaien ondorioz sortzen direnean.

36. artikulua. Dokumentuak, datuak eta informazioa ez aurkezteko eskubidea gauzatzea

Gogoeta orokorretan adierazitakoarekin bat etorriz, “behin bakarrik” printzipioaren aplikazio eraginkorra bermatzeko, 4. apartatua aldatzea proposatzen da, letra lodiz adierazitakoa gehituta:

Administrazioak interesdunei eskatu ahal izango die, eskabideetan, erantzukizunpeko adierazpenetan eta komunikazioetan, datuak, informazioa eta dokumentuak zein organotan, espedientetan eta datatan aurkeztu ziren identifikatzeko aukera ematen duen informazioa, bai eta horiek berriro aurkeztu behar ez izateko eskubidea gauzatzen laguntzen duen beste edozein informazio ere.

Apartatu honetan aurreikusitako informazioa eskatu ahal izango da soilik datuak edo dokumentuak aurkitzeko beharrezkoa denean eta eskuragarri dauden informazio-sistemen eta elkarreragingarritasun-mekanismoen bidez identifikatu ezin izan direnean.

Errekerimendua egin aurretik, organo kudeatzaileak informazio hori bere baliabideen bidez lortzeko arrazoiz beharrezkoak diren jarduketak egin beharko ditu. Muga teknikoak, antolakuntzakoak edo elkarreragingarritasunari lotutakoak ez dira nahikoa izango, berez, lehendik aurkeztutako dokumentazioa berriro aurkezteko ohiko betebeharra ezartzeko.

40. artikulua. Proiektuak elektronikoki aurkeztea

4. apartatuak honako hau ezartzen du: “*proiektuak aldi baterako gordailu horretan sartu zirenetik gehienez ere hiru urte igaro badira eta ez badira administrazio-prozedura bati lotu, ofizioz ezabatuko dira*”.

Aurretiazko abisua emateko apartatu bat gehitzea proposatzen da.

44. artikulua. Administrazioak erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa kontrolatzea eta egiaztatzea.

6. apartatuko bigarren paragrafoak honako hau ezartzen du: “*esku hartzeko araubidearen ordez erantzukizunpeko*

adierazpenak edo aurretiazko komunikazioak ezarri direlako, edo dokumentazioaren ordez adierazpenak edo komunikazioak ezarri direlako, aldez aurretik egiaztatzeko eginkizunak betetzen ez dituzten enplegatu publikoei ondorengo egiaztapenak egiteko eginkizunak eta ikuskapen-lanak esleitu ahal izango zaizkie. Horretarako, administrazioek jarduera horien efizientzia ahalik eta handiena izateko tresna analitikoak emango dituzte".

Eginkizunen aldaketa hori dagozkion lege-bermeak errespetatuz egitea iradokitzen dugu.

45. artikulua. Aurretiazko baimenak, lizentziak eta erregistroak erabiltzea

Gogoeta orokorretan adierazitakoa berretsiz, aurretiazko baimenen benetako salbuespen-izaera zaintzeko, 1. apartatuan letra lodiz adierazitakoa gehitzea proposatzen da:

Salbuespen gisa, eta lege-mailako arau baten bidez, aurretiazko baimenak edo lizentziak eskatu ahal izango dira interes orokorreko arrazoi erabatekoengatik, arauaren justifikazio-memorian behar bezala arrazoituz gero.

Justifikazio-memorian berariaz identifikatu beharko da alegatutako interes orokorreko arrazoi erabatekoa, zehaztu beharko da zer arrisku edo kalte saihestu nahi den, eta justifikatu beharko dira aurretiazko baimenen araubidearen premia, egokitasuna eta proportzionaltasuna, bai eta erantzukizunpeko adierazpena, komunikazioa edo ondorengo egiaztapen- eta kontrol-mekanismoak nahikoak ez izatea ere.

Interes orokorreko arrazoi erabateko bat modu orokorrean aipatzea ez da nahikoa izango motibazio gisa.

56. artikulua. Enplegatu publikoen gaikuntza digitala

- 2. apartatuan, urrutitik lan egiteari egiten zaion aipamena nahiko lausotuta geratzen da erabilitako formulazioaren ondorioz. Izan ere, urrutitik lan egiteko aukerak "sustatzea" aipatzen da, aukera hori ahalbidetzen duten lanpostu guztietan urrutitik lan egiteko modua "gaitu" beharrean, gero lanpostu horietan benetan urrutitik lan egiten den ala ez alde batera utzita.

  Horregatik, apartatu hori aldatzea proposatzen da, azpimarratutakoa ezabatuz eta letra lodiz adierazitakoa gehituz.

  Lanpostua espazio fisiko eta digitaltzat hartu behar da, eta urrunetik aritzeko formulak edo mugikortasuna duten postuak gaituko dira, eginkizunak modu horretan bete daitezkeenean.

- 4. apartatuan, beste paragrafo bat gehitzea proposatzen da, honela idatzita:

  Administrazio bakoitzeko langileen legezko ordezkariek beren eremuan sortzen diren premia berriak hautematen eta ebaluatzen parte hartuko dute, dagozkien negoziazio-bide eta -esparruen bidez.

59. artikulua. Ebazteko epeak eta epeen ebaluazio iraunkorra

Gogoeta orokorretan adierazitakoa berretsiz, administrazio-jarduna arintzea berariazko helburu duen lege batek hiru hilabeteko ohiko gehieneko epea ezarri beharko luke, eta epe luzeagoak behar-beharrezkoak diren kasuetan soilik onartu.

Honako idazkera alternatibo hau proposatzen da:

1. Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, oro har, hiru hilabetekoa izango da.

2. Salbuespen gisa, epe luzeagoa ezarri ahal izango da, prozeduraren izaera edo konplexutasun berezia edo babestu beharreko interes orokorrak direla-eta behar-beharrezkoa denean. Epe hori ezinbesteko

gutxienekoa izango da, eta ezingo da sei hilabetetik gorakoa izan, salbu eta lege-mailako arau batek, Europar Batasuneko Zuzenbideak edo aplikatzekoa den Estatuko legeriak bestelakorik xedatzen badu.

3. Hiru hilabetetik gorako epea ezartzen duen xedapen orok berariaz justifikatu beharko ditu epe hori beharrezko egiten duten inguruabar zehatzak, eta aztertu beharko du ea ezinezkoa den emaitza bera lortzea sinplifikazio-neurrien, aldibereko izapidetzearen, administrazioaren berrantolaketaren edo baliabide teknologikoen erabileraren bidez. Prozeduraren konplexutasunari edo interes orokorrari buruzko aipamen orokor hutsa ez da nahikoa izango motibazio gisa.

4. Hiru hilabetetik gorako epea duten prozedurak aldian-aldian berrikusiko dira, salbuespena justifikatzen duten inguruabarrek bere horretan jarraitzen duten zehazteko.

64. artikulua. Txostenak eta irizpenak emateko epea

Gogoeta orokorretan adierazitakoa berretsiz, barne-txostenak prozedurak moteltzen dituzten oztopo bihur ez daitezen, honako hau proposatzen da:

- 1. apartatuak honako hau ezartzen du: "Administrazio-prozedura batean, gehienez ere hamar eguneko epea egongo da txostenak eta irizpenak emateko, Estatuko edo Europar Batasuneko araudiak beste epe bat ezartzen duenean izan ezik". Apartatu hori aldatzea proposatzen da, honako testu hau ezarriz:

  Txostenak eta irizpenak emateko gehieneko epea hamar egunekoa izango da. Epe luzeagoa behar-beharrezkoa denean eta berariaz justifikatuta dagoenean soilik ezarri ahal izango da. Txostenaren konplexutasunari edo antolaketa-arrazoiei buruzko aipamen hutsa ez da nahikoa izango motibazio gisa.

- 2. apartatuan, honako testu hau gehitzea proposatzen da:

  Txostena nahitaezkoa baina loteslea ez denean, txostena ez egiteak ez du eragotziko ebazpena ematea, legez ezarritako etenduraren gehieneko epea igaro ondoren, hala badagokio.

  Txostena ebazteko legez ezinbestekoa denean, epea amaitu bezain laster, txostena egiteko errekerimendua egingo zaie organo eskudunari eta haren hierarkian goragoko organoari.

66. artikulua. Administrazio-sinplifikazioa programatzea, ebaluatzea eta haren berri ematea

Gogoeta orokorretan adierazitakoa berretsiz, sinplifikazioa eraginkorra den neurtzeko aukera emango duten adierazleak zehazte aldera, 6. apartatu bat gehitzea proposatzen da, honako testu honekin:

Urteko txostenean, lortutako emaitzak ezarritako helburuekin alderatuko dira, eta izandako desbideratzeak, horien arrazoiak eta, hala badagokio, aurreikusitako neurri zuzentzaileak identifikatuko dira.

73. artikulua. Zehapen motak

Gogoeta orokorretan adierazitakoa berretsiz, arau-hauste arinei dagokienez, zehapen motaren bat, ohartarazpena edo antzeko neurriren bat aurreikusten duen apartatu bat gehitzea proposatzen da.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Euskadiko Sektore Publikoko Datuen Gunea (BasqueData)

2.d) apartatuan, letra lodiz adierazitakoa gehitzea proposatzen da:

Berrikuntza publikoa, politika publikoen ebaluazioa eta datuetan oinarritutako ikerketa sustatzea, **bai eta prospektiba estrategikoa ere.**

Bigarren xedapen iragankorra. Prozedurak berrikustea

Bereziki positibotzat jotzen da xedapen hori, lehendik dauden prozedurak berrikusteko helburuen artean izapideak sinplifikatzea edo ezabatzea, epeak murriztea eta kostuak minimizatzea ezartzen baititu.

Aurreikuspena egokia dela uste dugu, baina xedapenak berrikuspenaren helburuak baino ez ditu ezartzen, berrikuspen hori gidatu behar duten gutxieneko edukiak behar bezala zehaztu gabe. Horregatik, komenigarritzat jotzen da arauketa osatzea, prozesua homogeneoa izango dela, sinplifikazio-neurri zehatzak identifikatzeko aukera emango duela eta ondoren emaitzak ebaluatu ahal izango direla bermatzeko.

Gainera, emaitzek publikoak izan beharko lukete, hartutako neurrien benetako eragina ondoren ebaluatu ahal izateko, eta Administrazio Sinplifikaziorako lehen Programaren abiapuntuko erreferentzia izan beharko lukete.

Honako hau gehitzea proposatzen da:

Berrikuspenean, gutxienez, prozeduren abiapuntuko egoera identifikatu beharko da, izapideei, dokumentazioari, txostenei, esku-hartze araubideei, legezko epeei, ebazteko benetako denborei eta administrazio-kargei dagokienez. Halaber, proposatutako sinplifikazio-neurri zehatzak jaso beharko dira.

Bereziki, baimenen, lizentzien eta gainerako aurretiazko kontrolen araubideak berrikusiko dira, premia- eta proportzionaltasun-printzipioak kontuan hartuta, eta aztertuko da ea erantzukizunpeko adierazpenen, komunikazioen edo ondorengo kontrolen bidez ordezka daitezkeen.

Emaitzetan identifikatuko dira ezarri beharreko neurriak, organo arduradunak eta gauzatzeko egutegia.

Eragin ekonomiko edo sozial berezia duten prozeduretan, eragindako interesen ordezkari diren erakundeen parte-hartzea bermatuko da. Berrikuspenaren emaitzak publikoak izango dira, eta Administrazio Sinplifikaziorako lehen Programaren abiapuntuko erreferentzia izango dira, ondoren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Azken xedapenetako laugarrena. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legea aldatzea, eta azken xedapenetako zortzigarrena. Lan Harremanen Kontseiluari buruzko urriaren 29ko 434/2013 Dekretua aldatzea.

Gogoeta orokorretan adierazitakoa berretsiz, bi azken xedapenak kentzea proposatzen dugu.

IV.- ONDORIOA

Euskadiko EGABek egokitzat jotzen du Euskal Sektore Publikoa Arintzeko eta Sinplifikatzeko Lege Aurreproiektua izapidetzea, kontsulta-organo honek hura aldatzeko egindako oharrak kontuan hartuta.

ERANSKINA

FINANTZA-ERAKUNDEEN ORDEZKARI DEN KONTSEILUKIDEAREN BOTO PARTIKULARRA

SARRERA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17kok 8/2012 Legearen 10.3 artikuluak eta Batzordearen Funtzionamenduaren Erregelamenduak xedatutakoaren arabera, kontseilukide sinatzaileak, hirugarren taldean sartuta dauden finantza-erakundeen izenean, boto partikular hau egin nahi du 9/26 Irizpenaren proiektuaren harira eta Osoko bilkuran onetsiko den irizpenari batzeko eskatu du.

Boto partikular hau osagarria da: ez du irizpenaren proiektuaren mami orokorra zalantzan jartzen, baina zenbait alderdi gehitzea proposatzen du irismena hobetzeko euskal finantzen sektoreari dagokionez. Nolanahi ere, irizpenean sartu ez direnez, aurkako botoa justifikatzen dute, bai eta boto partikular hau egitea ere.

I. BALIOZTAPEN

9/26 Irizpenaren proiektua kalitate bikaineko lan teknikoa da, eta zuhurtziaz lantzen ditu euskal sektore publikoan burokrazia arintzeko erronkak. Euskal finantza-erakundeek mamia partekatzen dute.

Hala ere, legearen aurreproiektuak eta irizpenaren proiektuak berak ere bai gabezia garrantzitsuak dituzte finantzen sektorerako, eta barne-tentsioak sor ditzaketen alderdiak ageri dira, saihets daitezkeenak, alegia. Horrek, hobekuntza-aukera ematen dio proiektatu den ekintza arautzaileari, eta hala justifikatzen da boto partikular hau egitea.

II. PARTEKATUTAKO ALDERDIAK

II.1 Lege-proiektuei buruzko irizpenak emateko epea

Hogeita hamar eguneko epea defendatzea partekatzen da lege-proiektuen gaineko irizpenak emateko. Hamabost egun baliodunera murrizteak prozesu arautzailean parte hartzearen kalitatea arriskuan jarriko luke, hain zuzen ere, ekimenik garrantzitsuenetan. Izan ere, horietan analisi tekniko zorrotzak eta, batez ere, ordezkatuta dauden interesen artean eztabaidatzeko eta adostasuna lortzeko prozesuak denbora nahikoa eskatzen du ikuspuntuak azaldu eta EGABk instituzional bihurtzeko.

Alderdi horri gehitu behar zaio 8/2012 Legearen 18.3 artikuluak premiazko prozedura bat duela, hamabost egun gainditu ezin dituena, salbuespenezko bide bezala Eusko Jaurlaritzaren eskaerari erantzuteko. Ohiko epe gisa orokortzeak aurreikuspen hori hutsaltzen du.

II.2 Administrazioa arintzearen printzipioa

Finantza-erakundeek interes berezia dute “behin bakarrik” printzipioa babesteko, erantzukizunpeko

adierazpenak orokortzeko, administrazio-kargak eraginkortasunez konpentsatzeko eta adierazle zehatzen bidez ebaluatzeko. Zutabe horiek bereziki garrantzitsuak dira sektorerako, kontuan hartuta bere jarduerak eta enpresa-bezeroen jarduerak sortzen dituen administrazio-elkarrekintzen kopurua.

III. GEHITU BEHARREKO OHARRAK

III.1 Finantzen sektorea eragile laguntzaile gisa administrazioa arintzeko

Aurreproiektuak eta irizpenaren proiektuak hiru ikuspegi erabiltzen dituzte arintzeko: herritarrak zerbitzu publikoen erabiltzaile gisa, enpresak administrazio-kargen subjektu gisa eta langile publikoak zerbitzu-emaile gisa. Bi testuek ez dute aurreikusten finantzen sektoreak duen berariazko eginkizuna.

Finantza-erakundeak (bankuak, aurrezki-kutxak, kreditu-kooperatibak eta kudeaketa-zerbitzuak) administrazio-izapideetan intentsitate handieneko bitartekariak dira EAEn, bai araututa duten jarduerari dagokionez, bai beren bezeroen prozedurei dagokienez. Bereziki:

- **erakunde laguntzaile gisa** dihardute **zergak** biltzean **eta** foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren **tasak eta prezio publikoak ordaintzean**;
- kontratazio publikoaren, baimenen eta administrazio-emakiden prozeduretan eskatzen diren **abal eta berme finantzarioak** kudeatzen dituzte;
- **nortasun digitala egiaztatzeko** prozesuetan parte hartzen dute (bezeroa ezagutzea eta kapital-zuriketa prebenitzea) administrazioaren identifikazio elektronikoaren sistemak osatzeko, eta
- **aurretiazko baimenak** edo **erantzukizunpeko adierazpenak** behar dituzten **proiektuen finantzaketa bideratzen dute administrazio askoren aurrean.**

Baimen-araubideak arintzeak eta erantzukizunpeko adierazpenak orokortzeak egiaztapen-arriskua mugitzen dute administraziotik operadore pribatuetara, eta eginbide zuzenaren prozesuetan (Due Diligence) eta sektoreko barne-kontroleko sistemetan zuzeneko eragina dute.

IRIZPENARI GEHITZEKO PROPOSAMENA

Legea arauz garatzen denean, espresuki aurreikusi beharko luke finantza-erakundeen eginkizuna administrazioaren eragile laguntzaile gisa izapideak arintzeko. Euskal administrazioaren identifikazio digitaleko sistemen (ziurtagiri elektronikoak eta B@kQ) eta finantza-erakundeetan nortasuna egiaztatzeko sistemen (eIDAS erregelamendua eta bezeroa ezagutzea) arteko elkarreragingarritasuna arintze-bektore paregabea da, karga bikoitzak murrizten baitira eta erabiltzaileen esperientzia hobetzen baita administrazio- eta finantza-eskakizunak konbinatzen dituzten prozeduretan.

III.2 Finantza-sistemarekin elkarreragingarritasuna BasqueDatan

Zortzigarren xedapen gehigarriak Euskadiko Sektore Publikoaren Datuen Eremua (BasqueData) arautzen du. Aurreproiektuak eta irizpenaren proiektuak ez dute jorratzen elkarreraginkarritasunaren ahalmena ikuskatutako finantzen sektoreko datuen sistemekin.

Europan aurrerapausoak ematen ari dira sektore publikoaren eta finantzen sektorearen arteko datuak trukatzearen esparruetara jotzeko (finantza irekien ekimena eta (EB) 2023/2854 Erregelamendua, Datuen Erregelamendua). Horri esker, asko arintzen dira, besteak beste, honako izapide hauek:

kaudimena egiaztatzea dirulaguntzak lortzeko, betetze-maila egiaztatzea zergen arloan sektore publikoarekin kontratatzeko edo lan-egoera egiaztatzea atzerritartasunaren edo etxebizitzaren prozeduretan.

IRIZPENARI GEHITZEKO PROPOSAMENA

BasqueDataren gobernantza-esparruak espresuki aurreikusi beharko lituzte ikuskatutako finantzen sektoreko erakundeekin koordinazio-mekanismoak finantza irekien printzipioen eta Datuen Europako Erregelamenduaren esparruan, eragingarritasunaren formulak arakatzeko. Helburua da gaur egun administrazioen eta finantza-erakundeetan ziurtapen paraleloak eskatzen dituzten izapideak aritzean. Koordinazio hori datuak babesteko berme osoz antolatu beharko da, proportzionala izango da eskuratzeko orduan eta Datuak Babesteko Euskal Agentziak ikuskatuko du.

III.3 Ziurtapeneko erakunde laguntzaileak: finantzen sektorea baztertzeko arriskua

Irizpenaren proiektuak dio ziurtapeneko erakunde laguntzaileak egiaztatzeko gutxieneko baldintzak zehaztu gabe daudela eta "bi abiaduretako administrazio" baten arriskua dagoela. Hala ere, ez du sektorerako alderdi interesgarri bat arautzen: finantza-erakundeen balizko prestakuntza ziurtapeneko erakunde laguntzaile gisa.

Finantza-erakundeek azpiegitura trinkoak dituzte dokumentuak egiaztatzeko, nortasuna ziurtatzeko, dokumentuen autentikazio indarturako eta zaintzarako. Beraz, izangai naturalak dira ziurtapen-eginkizunetan laguntzeko prozeduraren zenbait arlotan. Proiektatutako arauketak ez du argitzen finantza-ikuskaritzapeko erakundeak sar daitezkeen araubide horretan, ez eta zer baldintzetan ere.

IRIZPENARI GEHITZEKO PROPOSAMENA

Ziurtapeneko erakunde laguntzaileen araubidea araudiz garatzen denean, argitu beharko litzateke Espainiako Bankuak, CNMV edo Europako Banku Zentralak zuhurtasunez ikuskatzen dituen finantza-erakundeek ziurtatzeko eginkizunetan lagun dezaketen administrazio-prozeduren barruan, beren egiaztapen- eta identifikazio-azpiegiturak aprobetxatuz. Hori argituz gero, ez lirateke egitura paraleloak sortuko, gaitasun teknikoak dagoeneko merkatuan daudenean.

III.4 Erantzukizunpeko adierazpenak eta proiektuen finantzaketa

Aurretiazko baimenen ordez erantzukizunpeko adierazpenak hedatzeak (41-46 artikuluak) arrisku-asimetria nabarmena sortzen du proiektuen finantzaketa-prozesuetan.

Finantza-erakunde batek jarduera erantzukizunpeko adierazpenaren bidez eskuratzen duen proiektu bati mailegua edo abala ematen dionean, legezkotasunaren *ex ante* egiaztapena, orain arte administrazioak egiten duena, desagertu edo atzeratzen da. Hala, finantzen sektoreak karga handiagoa du eginbide juridiko zuzenean, eta arriskuak ebaluatzeko kostuetan eta bezeroei eskatutako informazioan eragingo du.

IRIZPENARI GEHITZEKO PROPOSAMENA

Erantzukizunpeko adierazpenen araubidea orokortzeak zuzeneko eraginak ditu finantza-erakundeetan enpresa-proiektuak finantzatzearekin lotutako arriskuak ebaluatzeko orduan. Eusko Jaurlaritzak baloratu beharko luke aurretiazko kontsulta-mekanismoa sortzea operadoreek, finantza-erakundeek barne, egiazta dezaten proiektu bat aplikazioko araudi-esparruari egokitzen zaion hasi baino lehen, batez ere, sektore arautuetan. Irudi horrek, eredu anglo-saxoiko «pre-application advice» irudiaren

antzekoak, ziurgabetasun juridikoa murriztuko luke legeak gainditu nahi duen aurretiazko baimenaren araubidea berriz sartu gabe.

III.5 Eraldaketa digitala: finantzen sektoreak duen esperientzia aprobetxatzea

Euskal finantzen sektoreak lehen mailako eraldaketa digitala izan du azkeneko hamarkadan. Inbertsio garrantzitsuak egin dira banku digitalean, autentikazio sendoetan, sinadura elektroniko aurreratuan eta kanal anitzak erabiliz emandako arretan. Milioika erabiltzailerekin prozesu digitalak kudeatzen pilatutako esperientzia aktibo bat da, eta administrazioak onura atera dezake.

Irizpenaren proiektuak administrazioaren eraldaketa digitala jorratzean ez du aurreikusten Eusko Jaurlaritzak lankidetza-esparruak zehaztea finantzen sektorearekin zerbitzu digital berriak diseinatu eta ezartzeko.

IRIZPENARI GEHITZEKO PROPOSAMENA

Eusko Jaurlaritzak lankidetza teknikoko esparruak arakatu beharko lituzke euskal finantzen sektorearekin herritarrei arreta digitala emateko sistemak diseinatu eta inplementatzeko, finantza-erakundeek metatutako esperientzia aprobetxatuz banku digitalaren, erabiltzaileen autentikazio eta kanal anitzen bidezko arretaren gaietan. Lankidetza publiko-pribatu hori tarteko, ez lirateke eginkizun publikoak kanporatuko, ezagutza eta estandarrak transferitu baizik.

Euskadin, 2026ko urriaren 7an.

Sin.: Iñaki Beristain Etxabe

Finantza-erakundeetako kontseilukide ordezkaria (hirugarren taldea)